

zesan: *aditz factitivo*-tan, *-ra* ibiltzen dala edo dala, artarako *afijo*-rik bakařena. Eguskitza jaunak bere lanean, ez dala bakar bakařa dio, baizik aditz batzuek *factitivo* eragiteko egokiago dela *afijo -era*.

Beste gai batzuek bigaramonerako-utzirik otoitzez amaitu da batzařaldia.

Donostian Eusko-Ikaskuntzaren aretoan, 1933-ko Garagařilaren 28'an.

Batzařaldian jaun abek dagoz: Azkue, maipuru; Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe eta Elissalde; urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

1.^a Azkue jaunak bere lan GIPUZKERA OSOTUA irakuři digu.

2.^a Lopez Konde jauna gure artera dator, Iztegi beřitzaz itz egitera. Jaun onek bere gain artu nai du Iztegi beřiaren saltzea, onenbesteko bat Euskaltzaindiari ordaindu-ta. Euskaltzaindiak onetsi ditu Lopez Konderen eskabideak: beaz jaun au gelditzen da Iztegi beřiaren saltzaile bakar. Esan zaio 50 bat ale bear dituela Euskaltzaindiak bere bařunbeko ta kanpoko laguntzaileai bana emateko. Ez du Lopez Konde jaunak eragozpenik jaři ta emango ditu uřirik ale oiek.

3.^a Aita Intzak irakuři digu Arabako *Alkarte* euskaldunak egin duen araudia. Gazteiz-en bilduko omen dira *Alkarte* onen lagunak, Eusko-Ikaskuntzak antxe izango dituen batzařaldietan. Euskaltzaindiko yabon-sařaren mendean bizi nai luteke. Ortarako eragozpenik al da? Euskaltzaindiak ezetz dio, ta ongi aztertu ondoren onesten du *euskal adiskide* beři oiek erabili-ko duten ager-izena; auxe noski *Euskaltzaindiaren*

laguntzaileak. Euskaltzale berri abek beren batzañaldiak izango dituzte noski eta abetarako Euskaltzaindiak bere izen-ordekotzat Aita Intza izendatu du.

Ta beste gairik izan ez da batzañaldia otoitzez amaitu da.

Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1933'ko Urriaren 19'an.

Batzañean euskaltzain abek daude: Azkue, maipuru; Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea eta Oleaga.

Otoitz egin da.

1.^a Aita Intzak esan digu: *Euskaltzaindiaren laguntzaileak* joan dan Agoñean Donostian bildu zirala ta bera izan zala maipuru batzañaldi oietan. Batzañaldi auetako erabakiak Euskaltzaindiaren onespenean ipintzen ditu, au agindu bai - zioten batzarkideak. Euskaltzaindiak ontzat artzen du menpealdi au, bañan erabakitzat dauka, Euskaltzaindiaren laguntzaileak azkatasun geiagoz ibili bear dutela: badakizki Euskaltzaindiak laguntzaile oien ardura ta gogoia euskeraren alde ta auxe naiko zaio, erabaki ta lanak bere onespenera ekañi gabe.

Laguntzaile oiek darabilkiten beste asmotaz itz egin da: Ìleroko aldizki bat nai luteke ta bertantxe argitaratzeko dabiltz noski. Gañera sorospide bat Euskaltzaindiarengandik nai dute. Euskaltzaindiak orain arterañoiko eskari guziak beteko ditu.

Laguntzaile oiek erabiliiko duten iker-burua auxe da: *Aurak euskalduntzeaz, Abeeña euskaldundu*.

Laguntzaile oiek bere lendakaria Euskaltzaindiak izendatua nai luteke. Ezetz dio onek. Azkatasuna badute ta berak aukera bezate lendakari ori, bañan